



30/2003 GOMENDIOA, AZAROAREN 5EKOA, EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILARI EGINA, LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN SARTZEKO INTERESDUNAK ALEGATU DUEN IKASKETA-ESPEDIENTEA BALIOZTA DEZAN.

Aurrekariak

1. Irakaskuntzako funtzio publikoan (zehazki, lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoan) sartzeko hautatze-probetan parte hartu zuen pertsona batek erakunde honetara jo zuen, esku har genezan eskatzeko eta honako hau erreklamatzeko: kidego horretan sartzeko alegatu zuen titulazioari, alegia, elektrizitate eta elektronikan espezializatutako teknikari tituluari dagokion ikasketa-espeditentea balora zedila, merezimendu gisa, hautatze-proba horien lehiaketa aldian.

Aldi berean, administrazio bidezko errekurtsioa aurkeztu zuen.

2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileriaren kudeaketa zuzendariak honela erantzun zien erakunde honen galderei:

"Lehen aipatutako apirilaren 22ko 574/1991 Errege Dekretuak irakasteko titulu baliokide gisa aitortzen du (...) jaunak aurkeztutakoa. Horregatik, titulu hori ez da inoiz kolokan jarri interesatua hautatze-prozesuan onartzeari begira.

Dena den, titulu horrek irakasleen funtzio publikoan sartzeko aukera ematen duen arren, horrek ez du barematu behar denik esan nahi, aplikazio-baremoan jasotako zehaztapenei lotzen ez baldin bazaie, hots, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidego horretan sartzeko oro har eskatutako titulua izatea.

Horrela ez dela ulertzen dugunez, hots, erakutsitako titulua ez da oro har eskatzen dena, ez zaio ikasketa-espeditentearen idatz-zatia barematzeko orduan kontuan hartu."



Gogoetak

1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez, hautatze-probak iragarri ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren Kidegoan, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan, Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoan, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoan eta Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoan sartzeko (EHAA, azaroaren 14koa). Agindu horrek, I. eranskinean, ezinduentzako erreserban eta txanda irekian merezimenduak baloratzeko taula ezarri zuen.

Ikasketa-espeditari buruzko merezimendua aipatzean, zera ohartarazten du berariaz: *"atzeman nahi den Kidegora sartzeko aurkezten den tituluari dagokion espediente akademikoaren batez besteko nota baino ez da baloratuko"*.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adierazi duenez, apirilaren 22ko 574/1991 Errege Dekretuan merezimenduak baloratzeko ezarri ziren zehazpenak berridatzi besterik ez da egiten azaroaren 8ko Aginduan. Dekretu horren bidez, aldi baterako arautu zen urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan - Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzkoa (LOGSE)- aipatu ziren kidegoetarako sarbidea.

2. Jakina denez, azken arau horrek -574/1991 Errege Dekretuak, apirilaren 22koak-, aldi baterakoa izan arren, LOGSEren xedapen batzuk osatu zituen, esate baterako, hamaikagarren xedapen gehigarria-3. atala, eta irakaskuntzan aritzeko, alor eta irakasgai batzuetan zenbait titulazio baliokideak direla adierazi zuen, betiere irakasgai edo espezialitate horrekin lotutako lan-alor batean gutxienez bi urteko lanbide-esperientzia izan dela egiaztatzen bada.

Era berean, LOGSEren aldi baterako beste xedapen batzuk ere garatzen ditu funtsean -bosgarren xedapen iragankorra, kasu-. Xedapen horiei esker, salbuespen gisa, lege horretan sortu ziren kidegoetan sartzeko lehen hiru deialdietan parte har dezakete gutxienez hiru ikasturtetan bitarteko funtzionario gisa lanean aritu direnak eta LOGSE indarrean jarri zenean lanean jarraitzen zutenak, nahiz eta kidego horietan sartzeko oro har eskatzen den titulaziorik ez izan, eta ezartzen diren baliokidetasunak gorabehera.



3. Horrela, 574/1991 Errege Dekretuak, lanbide heziketako irakasle teknikoan kidegoan sartzeko bete behar diren berariazko baldintzak ezartzean, beharrezko baldintzat jotzen du titulazio hauetakoren bat izatea irakaskuntzan jarduteko: diplomaduna, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa edo horien baliokidea. Beraz, I. eranskinean, adar bereko bigarren mailako lanbide-prestakuntzako tituluak baliokidetzat jotzen dira irakaskuntzan aritzeko, praktikak irakasgaia emateko lanbide heziketako adarretan, betiere beharrezko lanbide-eskarmetua egiaztatzen bada. Hala ere, halako titulaziorik ez izan arren, bitarteko funtzionario gisa gutxienez hiru urtez lanean aritu direla egiaztatzen dutenak ere parte har dezakete.

Bestalde, lehiaketan aintzat hartu behar diren ikasketa-merezimenduak bere artikuluetan aipatzen dituenean, zera ohartarazten du: halakotzat joko direla, besteak beste, kidegoan sartzeko exijitutako tituluari dagokion espediente akademikoan agertzen diren kalifikazioak.

Azkenik, II. eranskinean, kidegoan sartzeko aldi baterako deialdiek zein baldintza bete behar dituzten adierazten da. Ikasketa-espedienteari buruzko merezimendua nola tratatu zehazterakoan, hauxe dio: bakar-bakarrik baloratuko dira kidegoan sartzeko oro har exijitutako tituluak lortzeko beharrezkoak diren ziurtagiri akademiko pertsonaletan azaltzen diren kalifikazioak.

4. Xedapen hori hitzez hitz transkribatzen da kexa hau eragin duen deialdiaren Aginduan (*se valorarán exclusivamente las certificaciones académicas personales necesarias para la obtención del título exigido con carácter general para el ingreso en el cuerpo al que se opta*). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak uste du xedapen horrek mugatu edo murriztu egiten dituela kalifikazioen ziurtagiriak merezimendutzat hartzeko aukerak: hain zuzen, beste inolako baldintzarik gabe kidegoan sartzea ahalbidetzen duten tituluak bakarrik baloratu behar direla (kasu honetan, diplomadun, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoaren tituluak), eta, beraz, ez dela bidezkoa beste titulazio batzuei dagozkien ziurtagiriak baloratzea, nahiz eta horiek irakaskuntzarako baliokidetzat joak izan, ulertzen baita azken titulazio horiek -baliokide jotakoak- ez datozela bat oro har exijitutako titulazioekin.
5. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatu eta aldeztu duen interpretazio horrek kontraesan larria sortzen du: alde batetik, titulu zehatz bat irakaskuntzarako baliokidetzat joa izan ondoren, titulu hori kidego jakin batean



sartzeko nahikoa dela onartzen du, baina, beste alde batetik, titulu horrek berekin dakarren prestakuntza akademikoa ez du merezimendu gisa aintzat hartzen lehiaketan, nahiz eta lehiaketaren aldi horren helburua prestakuntza akademikoa baloratzea den, hain justu (kidegoan sartzeko ahalmena ematen duten eta nahikoatzat jotzen diren tituluak eman aurretik jasotako prestakuntza akademikoa).

Horregatik, interpretazio murriztaile horren kontra, beste interpretazio bat proposatu behar da, 574/1991 Errege Dekretuaren aldi baterako erregimenari hobeto egokitzen zaiona, guk uste.

6. Egiaz, gure iritziz, 574/1991 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritako xedapenak interpretatzerakoan (*se valorarán exclusivamente las certificaciones académicas personales necesarias para la obtención del título exigido con carácter general para el ingreso en el cuerpo al que se opta*), ulertu behar da xedapen horiek bere baitan hartzen dituztela irakaskuntzarako baliokidetzat jo diren titulazioak ere, guztiak sartzen baitira -lehenengoak nahiz baliokideak-kidegoan sartzeko sistema orokorrean, alde batera utzita LOGSEren bosgarren xedapen iragankorra garatzeko aurreikusi zen salbuespena. Izan ere, lehen esan dugunez, salbuespen horri esker, deialdian parte har dezakete titulazio orokorrak ez izanik ere, bitarteko funtzionario gisa lanean aritu direla egiaztatzen dutenek. Salbuespen kasu horretan, ez da kontraesanik sortzen hautagaiek egiazta ditzaketen titulazioak lehiaketan merezimendu gisa aintzat hartzen ez badira eta baloratzen ez badira.

Orduan, "*con carácter general*" esapidea, gure aburuz, exijitutako tituluari lotuta ulertu behar da, ez hezkuntza-administrazio horrek eman dion zentzu murriztaile eta baztertzailan, bada bereizketa horrek alegatutako tituluaren arabeko diskriminazioa sortzen du, eta deialdiaren Aginduan transkribatutako araudiak ere ez du babesten bereizketa hori. Izan ere, lehen aurreratu dugunez, 574/1991 Errege Dekretuak berak (22. artikulua) ez du inolako bereizketarik ezartzen, merezimendu akademiko gisa, kidegoan sartzeko exijitutako tituluari dagokion espediente akademikoko kalifikazioak aintzat hartzean; hortaz, titulu horien balioa izan dezakete, oro har, 16. artikulua 3 a) atalaren arabera, bai diplomadun, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko tituluak, bai irakaskuntzarako horien baliokidetzat jo direnak.

7. Iritzi hori oinarritzeko, Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiak emandako 75/2001 Epaiaz gain (JUR 2001\327596), nahikoa iruditzen zaigu ekainaren



4ko 850/1993 Errege Dekretua aipatzea, horren bidez arautzen baita irakaskuntzako funtzionarioen kidegoetan sartzera eta espezialitateak hartzea, kidego horietan sartzeko aldi baterako deialdiak agortu eta gero.

Legeria berri horrek merezimenduzat jotzen du, behin eta berriz, prestakuntza akademikoa, eta espediente akademikoaren balorazioa alegatutako tituluan egiteko agintzen du -bestelako ñabardurarik gabe-; hala ere, lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko berariazko baldintzak ezartzen dituenean (17.3 artikulua) halako baldintzatzat jotzen ditu, orobat, unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko, arkitekto tekniko edo horien baliokidea den titulazioa izatea, irakaskuntzan aritzeko. Azken hori bat dator LOGSEren hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, lehen 574/1991ko Errege Dekretuko aldi baterako araudiarekin gertatzen zen bezalaxe.

Ohar gaitzen legeria berri horrek -kidegoan behin betiko sartzeko sistema arautzen du, LOGSEn ezarritako salbuespenetzko arauak agortu ondoren- ez duela sartzeko titulazioari buruzko inolako eskakizunik ñabartu beharrik (oro har ezarritako titulazioa, e.a.), ez baitago LOGSEren bosgarren xedapen iragankorrak ahalbidetutakoak bezalako salbuespenak egiterik, eta aurreikusitako titulazio guztiak (baita baliokidetzat jotakoak ere) berdin baloratzen dira sartzeko sistema orokorrean.

8. Errepikakorrak izateko arriskua badugu ere, ostera zera adierazi nahi dugu: 574/1991 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa aplikatuz deialdiaren Aginduan egin den zehazpenak zentzua izan dezan, ezinbestekoa da hori LOGSEren bosgarren xedapen iragankorrak babesten duen salbuespenetzko sarrera-sistemarekin lotzea (ildo berean: otsailaren 19ko 2/1993 Legearen lehen xedapen iragankorra; EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoei buruzko legea da hori). Izan ere, esan berri dugunez, irakasleen kidegoetan sartu eta espezialitate berriak hartzeari buruz geroago agertu den araudiak (850/1993 Errege Dekretua, ekainaren 4koa) ez du kexa hau sortarazi duena bezalako ñabardurarik ezarri, nahiz eta errege dekretu horretan xedaturiko baliokidetasun-erregimena ere aldi baterakoa izan. Horixe egiaztatzen du bere lehen xedapen iragankorrak, baita apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak ere (horren bidez, hezkuntza sistemako lanbide-prestakuntzaren antolaketari buruzko alderdi jakin batzuk garatzen dira).



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

30/2003 GOMENDIOA, azaroaren 5koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina

Beharrezko neurriak har ditzala interesdunak jarritako administrazio-errekurtsua onar dadin eta, hortaz, lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko berak alegatu duen ikasketa-espeditentia balora dadin.